

◦ Lifeplace Learning ◦

Bizitza, hezkuntza sistemaren ardatz

Zenbat aldiz pentsatu dugu eskolan eta unibertsitatean ikasi duguna ez dela baliagarria? Zenbat aldiz, hezkuntza sistemak planteatzen dituen bideak denbora-galtzea direla eta ez gaituztela bizitzarako prestatzen? Hurrengo testu honetan proposatzen dizuegu bizitza bera hartzea hezkuntzaren ardatz.

MONIKA MADINABEITIA *

BIZITZAN IKASI DUGUNA hezkuntza arautua-
ren zati bihurtzea: horra ingelesez Lifeplace
Learning (LPL) izena hartzen duen ideia.
Euskaraz ez dago, momentuz, kontzeptua
biltzen duen terminorik, baina Bizitza-Ikas-
kuntza izan liteke aukera ona. Halere, guk
ingelesezko hitza erabiliko dugu artikulua
honetan.

**Lehenengo
mailako Irakasle
Ikasketako
ikasleak, HUHEZI
fakultatean
(Eskoriatza).**

Bizitzan ikasitako guztiak du garrantzia.
Dena den, atal batzuei beste batzuei baino
garrantzi handiagoa eman zaie. Adibidez,
ingeniaritzari eman zaio haurra hezteari
baino balio handiagoa. Beharbada hau
horrela da munduko fisikari dagokionez,
baina, nork behar du jakin, adibidez, zein
diren makina baten osagaiak haur bat hezte-





Ingeniaritzari eman zaio haurra hezteari baino balio handiagoa, baina nork behar du jakin makina baten osagaiak haur bat hezteko?

ko? Edota, zer garrantzi du aljebra jakiteak osasuntsu egoteko?

Hainbat espazio eta alorretatik ikas dezakegu, ikastea ez baitago testuinguru edo espazio jakin bati lotuta. Jakintza hau, beraz, testuinguru formalean, ez formalean edota informalean gerta daiteke. Horren ondorioz, etengabeko ikasketatzat jo daiteke —ingelesez *Lifelong Learning* gisa ulertzen dena— momentu oro eta edozein tokitan gertatzen dena, espazio fisiko edo eta denbora-espazio konkretu bati lotua egon gabe.

Ez dago definizio bakarra “jakintza” azaltzeko, eta gu ere ez gara orain lan horretan hasiko, baina interesgarria izango litzateke honen inguruan benetako hausnarketa egitea. Testuinguru formaletako jakintza ez da bizitzarako erabilgarria den bakarria, beraz, ez litzateke ulertu beharko egiaztatu daitekeen jakintza bakartzat. Sukaldean, etxean, kalean... ezin da ukatu jakintza momentu oro ematen dela, baina aztertu beharrekoa da zein balio ematen diogun bizitzan eta zergatik ez den hezkuntza arautuan aintzat hartzen. Horrelako ezagutzari testuinguru akademikoetan espazioa emateak beste ate batzuk zabal ditzake; adibidez, hezkuntza inklusiboagoa izatera bultzatzen dezake. Unibertsitatera joan ezin den jendearen ezagutza aintzat har dezake bide honek, eta horren ondorioz, gizartearen balioetsiago eta ezagutuago sentitu. Testu honen helburua ez da ezagutza formalaren, ez-formalaren eta informalearen artean banaketa zorrotza egitea, baizik eta euren arteko harremana ikustea eta ulertzea batak bestearen beharra duela eta guztiak direla baliagarriak.

“Baliagarria” zer den oso eztabai-dagarria da noski, baina espresuki adierazi nahi dugu jakintza guztiak direla baliagarriak testuinguru baterako edo besterako, eta horrexegatik eman behar zaiola ezagutza horri beharrezkoa duen balioa. Nork esan dezake ez dela baliagarria gurasoek haurrak heztean ikasten dutena? Edota norbaitek oso gertuko norbait galtzen duenean bizi dituen esperientzia eta aldaketak, eta bizitza berrekitzeko egiten duen ahaleginetan ikasitakoa ez dela baliagarria izan? Nork esan dezake minbizia duen norbaitek ez duela bere egoeratik modu baliagarrian ikasi? Mendetan zehar kasu gehienetan politikariek eta akademikoek ezarri dute “zein jakintza” den baliagarria, eta, beraz, ikasketa-kredituak merezi dituen. Halere, ezagutza hau, oro har, diziplina jakin bati dago lotuta.

Jarrera akademiko arazo da, zeren eta akademikoek uste baitute euren esku dagoela ikasleek zer ikasi behar duten erabakitzea, ikasle horien helburu profesional edo pertsonalak kontuan izan gabe. Horrek elitismo forma bat sortzen du. Gure ustez hezkuntzak pertsona baten garapena eta bere ekarpenak gizartearen ahal den eta osatuen izan daitezen ahalbideratu behar du; horretarako ezinbestekoa da praktika eta teoria bat etortzea. Teoriak praktika bideratu behar du, baina praktikak ere teoria molda dezake. Beraz, akademikoek jarrera aldatu beharra dago. Jakintza mota guztiak, berdin dio non eta nola eman diren, baliagarriak direla ulertu behar da.

Ezinbestekoa da LPL bidez ikasitakoa garrantzitsutzat jotzea. Halere, derrigorrezkoa da sistema bat jakintza honi duen errekonozimendua formalki eman ahal izateko. Euskal Herrian, Eusko Jaurlaritzaren barne dagoen Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua (KEI) da, oraindik, sistema honetan aritzen den bakarrenetakoa. Institutu horretan, adibidez, norbaitek sukaldari titulua jaso nahi badu, aukera du aurretiazko ikaskuntza baliozkotzeko. Lanbide Heziketako Kalitaterako eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentzia arduratzen da lan-espereintzia ofizialki egiaztatzeaz. Agentzia horrek aurkezpen orrietan dioenez, “tradizioz, egiaztagirak edo tituluak ematerakoan, soilik ikaskuntza sistema formalean bidez lortutako kualifikazioak onartzen ziren. Hala ere, eta pertsonen beren gaitasunak hainbat bidetatik lor eta garatu ditzaketela kontuan hartuta, hots, enpresan egindako lanen bidez, gizarte esparruetan, informazio sareetan

—nork bere kasa ikasita—. . . Gaitasuna Egiaz-
tatzeko Egitura abiarazi du Eusko Jaurlari-
tzak, Lanbide Heziketako Kalitaterako eta
Gaitasuna Ebaluatzeneko Euskal Agentziaren
bidez. Helburu du, funtsean, bizitzan norber-
rak barneratutako lanbide-gaitasuna ebalua-
tzea eta izaera ofiziala emanda egiaztatzea,
ikaskuntza formalak eta ez formalak barne
hartuta”. Horretaz gain zera dio: “Edozein
bidetatik eskuratutako lanbide gaitasunak
Lanbide Kualifikazioen barnean ezarritako
gutxieneko maila betetzen duela egiaztatzeaz,
ebaluatzeaz eta ziurtatzeaz arduratzen da
(...) Egitura horren bidez, modu per-
sonalizatu eta malgu batez, pertsonen
beren aurretiazko ikaskuntzak kapitali-
zatzeko aukera ematen zaie beren gai-
tasuna bultzatzeko eta lanbidean
aurrera egiteko”.

Beraz, adibidera bueltatuz, sukaldari
titulua bereganatu nahi duenak eba-
luatze prozesu bat pasako du bere gai-
tasuna egiaztatzen. Horrek ez du esan
nahi zuzenean sukaldari titulua eman-
go zaionik, baina bai, behar bada, kon-
petentzia unitate bat edo batzuk,
kasuaren arabera. Horren harira, Espainiako
Ministerioak titulazioa lortzeko aukera ematen
duen lege berria onartu berri du, lanbide
heziketan esperientzia egiaztatuz gero. Aurre-
rapausoa da, argi asko.

Dena den, urrats bat haratago joatea litza-
teke KEIk lanbide heziketan duen experien-
tzia unibertsitate alorrera transferitzea LPL
egiaztatzen eta kapitalizatzen; eman behar-
reko urratsa. Mondragon Unibertsitateko
HUHEZI fakultatea azken bi urteotan proiektu
europar batean murgilduta egon da Euro-
pako beste lurralde batzuetako unibertsitate-
ekin batera (Alemania, Eskozia, Estonia eta
Finlandia). Proiektu horretan aztertu da LPL
unibertsitate-mailan praktikara nola eramaten.
Horretarako ikastaro eta modulu pilotuak
sortu dituzte lurralde guztiek, eta HUHEZIK
modulu eta ikastaro horietan izandako emai-

**Unibertsitatera joan
ezin den jendearen
ezagutza aintzat har-
dezake bide honek, eta
horren ondorioz,
gizartean balioetsiago
eta ezagutuago sentitu**

tzak ebaluatu ditu. Helburuetarik bat izan da
ikasleek LPL zer den ulertzea. Aipatu lurral-
deetan sakabanatutako 43 ikasleek, zazpi irak-
asle-bideratzaileek (ingelerazko *facilitator*) eta
lau instituziok osatu dute lagina. Adinaren
batez bestekoa izan da 29 urte eta 8 hilabete-
koa —gazteenak 20 urte eta zaharrenak 50—.
Lehen saiakera honetan, proiektua bideratu
dutenek, ikasleekin lan egiten dutenek eta
ikasleek berek erantzun positiboa adierazi
dute. Adibidez, ikasleek gehien baloratu du-
tena izan da modulu eta ikastaro hauetako mal-
gutasuna eta erabakiak askatasunez hartzeko

aukera. Horretaz gain, bizitzaren hain-
bat testuingurutan ikasitakoa lotzeko
aukera ere altu baloratu dute. Aldi
berean, irakasle-bideratzaileek gehien
baloratu dutena izan da modulua baliagarria
izan dela bai ikasleentzat eta
baita eurentzat ere. LPL kontzeptua
ikasle eta irakasle-bideratzaileek por-
tzentaje handi batean ulertu dutela
diote emaitzek; beraz, ezarritako hel-
burua neurri esanguratsuan bete da.
Halere, badago oraindik egitekorik.

Adibidez, LPL bitartez ikasitakoa
demostratzeko ebaluaketa-sistema oraindik
zorroztu beharra dagoela diote emaitzek.

Europako proiektu honetan sortutako tal-
dea hasi da lanean erronka handi honetan.
Baina oraindik, lan asko dago akademikoek
LPL-ren garrantziaz kontzientzia hartzeko,
gizartea ere horretaz ohartarazteko eta hori
guztia teoria izatetik praktikara bideratuko
duen egitura egonkorra sortzeko. Ikaskun-
tza-sistemei buelta emari eta gure eguneroko-
tasunean ikasitakoak modu baliagarrian pre-
sentzia handiagoa izatea nahi badugu,
gizarteko gainerako elementu eta sektoreek
ere hartu beharko genuke parte lan honetan.
Guzti-guztiok dugu jakintza baliagarria esku
artean. ■

** Parte hartu duten beste egileak:
Agurtzane Bikuña eta Pili Sagasta*

GATIBU
1ano Gaitibu Gaitibu
1ano Gaitibu Gaitibu

Otsailak 28 (larunbata) Rock Star Live BARAKALDO
Ateak ireki: 20:30etan, kontzertua hasi: 21:00etan
Surrerak: aurretik 8 €, bertan 10 €
Surrerak salgai:
BILBO (Muga taberna eta Power Records denda)
MUNGIA (Oialde Aretoa)
BARAKALDO (Legend taberna)
SANTURTZI (Jaska 3 taberna)
PORTUGALETE (Pelotazo taberna)

Antolatzailea
Bigo-Argi markak elkarri
914 480039-04
www.bigo-argi.com/100daysgaitibu

UNE
HEZAILK OABE HEZIAN